

bidegileak



Jean Pierre Arbelbide (1841-1905)

Egilea:

XIPRI ARBELBIDE

Jatorri aztarnak

*P*iarres Lafitteren arabera, batzuetan Axularren Gerok berak baino kalitate handiagoa daukaten liburuak idatzi dituen Jean Pierre Arbelbide, Zaro Iturbidean sortu zen Donibane Garazitik bi urratsetan. Iturbidea ez da oraingoa. 1350ean aipu da Nafarroako erregeen artxiboetan, nahiz ez zen oraingo etxe hori: ate gainean dauden bi harrietarik lehenaren arabera apaiz zen etxeko seme batek harriz eraiki zuen 1677an. Zurez zitekeen ordu arte, lehenagoko etxeak bezala.

Azpiko harriak berriz salatzen digu, haizeak bota zituela murru eta teilatu

eta berreraiki zutela Hazparne eta Azkarateko erretore ziren etxeko bi semeek. Bi apaiz horiek ezagutzen ditugu, Martin eta Mixel Etxeberri. Hori zen garai haietan etxekoen deitura. Iturbideko beste bi apaiz ere baziren bizi garai haietan baina ez dakigu haien izenik.

Graxiana Etxeberri, apaizen arreba, ezkondu zen Jatsu Arbelbidetik heldu zen Gilenekin. Arbelbide ere ez zen ordukoa, Iruñeko artxiboetan agertzen da lehen aldikotz 1305ean,



Jean Pierre Arbelbide (1841-1905)



Zaroko herria. Elizaren eskuinetara Iturbidea, Arbelbideren sortetxea

don Bergoyn Arbelbidekoak, Ganaberro auzoarekin izan zuen auzi batez.

Arbelbide-Etxeberri ezkontza ez dakigu noizkoa den baina Erramun, ezagutzen dugun lehen haurra, 1740an sortu zen. Honen lehen semea, Mixel, Graxiana Irigoin Zaroa-rrarekin ezkondu zen. Domingo, Mixelen hirugarren haurra da gure Jean Pierreren aita, ama aldiz, Joana Etxeberri-Lako.

Jan Pierre Arbelbide 1841ean sortu zen abenduaren 20an. Lehen mailako eskolak Baionan bururatu zituen Lasalleko fraileetan, Jan Ba-

tista Santandreko erretore eta kalonje zen bere aitaren osabaren etxean bizi zela.

Gero sartu zen Larresoroko seminarioan ez baita harritzeko etxeko horrenbeste apaiz ibiliak zirelarik ikastetxe horretan: Martin Etxeberri apaizak zioenaz, bi mendez izan ziren. Martinen iloba, Jan Batista Arbelbide, Baionako kalonje hil zen 1863an. Martin Arbelbide honen iloba, Beskoitzeko erretorea, gure Jean Pierreren osaba zen. Beste osaba bat ere bazuen apaiza, Jean Baptiste Irigoin, hau ere Beskoitzen erretore egona.

Ate-gaineko harriak. Lehenak erraten digu etxe hau harriz egin zuela etxeko seme apaizak 1677an. Harri handiak berriz, ekaitzak bota zuela etxea eta Azkarate eta Hazparneko erretoreek berreraiki zutela 1787an



Iturbidea. Hor sortu zen Jean Pierre Arbelbide

Martin Etxeberri apaiza Hazparneko erreto-
re zen Iraultza etorri zelarik. Garai zailak
apaiz, fraile eta serorentzat. Beste gehienek
bezala ihesi joan behar izan zuen, batean Za-
ron gordetzen zela, bestean Luzaidera joaten
mugaren haizolberat, gordelekura. La Oliba-
ko frailetxean hil behar zuen Pavée de Ville-
vielle Baionako apezpikuak bikario nagusi
izendatua zuen. Iparraldeko 143 haur bazi-
tuen bataiatuak lau urtez Luzaiden, armada
frantsesak eliza errerik, anartean eraikia zu-
ten kapera batean. Luzaide bertako haurrak
bestalde. Hor ere ez baitzen apaizik Kon-
bentzioko gerraren ondorioz.

Artetan beraz mugaz honaindira ere pasa-
tzen zen, gordeka. Gero Zaron egona zen
eta ahal zuelarik Hazparnen agertzen. Meza
ematen zuen Iturbideko ezkaratzaren gaine-
ko gela handian Jan Pierrek berak kontatzen
digun bezala *Erlisioea* liburuan...

Ez baitzen irrati eta telebistarik garai haie-
tan, Iturbideko supazter xokoan gertakari
horietaz mintzo ziren askotan. Ez da harri-
tzeorik horrelako giroan handitu eta, apaiz-
tu bazen.



Iturbide etxeko hilobiko gurutzea, eliza atean

Mutikoentzat komentua

Apaiztu eta Milafrangara igorri zuen bikario Mgr Lacroix Baionako apezpikuak 1867an. Ondoko urtean Hazparnera izan zuen aldairra eta hor egonen da 30 bat urtez: hiru urtez parrokiako bikario eta gero misionesten etxean, misioneak predikatzen zituela parroketan.

Herriz herri zebilela, gogoan alan zeukan serra anitz bazelarik Iparralde honetan, nolaz ez zen gizon komenturik? Mutiko gazteetan ere bokazioak bazitezkeen nesketan bezala. Haren ustez, mutikoak ez ziren sartzen fraile

frantsesak ziren komentuetan, frantsesa ez zekitelakotz. Hemen berean beharko zen komentu bat muntatu, euskalduna. Aments bat! Nondik bil horretarako behar litekeen dirua? Eta bokazioak? Eta hona non, Hazparneko andere aberats batek 30.000 libera ematen dizkion. Badaki zertan xahutuko dituen.

Dirua badu baina gizonak behar orain.

Misionesten etxean bada osagarri ttipiko apaizgai bat, bastidarra, Cyprien Caillava. Familia burges bateko haur bakarra, dirua bazuen honek ere. Elkarrekin aritzen ziren




Jatsu Arbelbidetik heldu zen Gilenekin ezkondu zen Graxiana Etxeberri

delako komentu eskasaz. Behin, alegia deusez galdetu zion: «Zer egin nahi duzu zure diruaz? Arrantier eta handiki bizi bat segurtatu? —Ez, ez! Zerbait egin nahi nuke bainan ez eskuin eta ezker purruxkaka barreiatuz».


Biharamunean erran zion sekretu handiean, berak ere bazuela diruketa bat eta biek elkarrekin behar zuketela komentu bat erosi. Caillava akort izan zen eta gainera beste sekretu bat erran zion. Haiekin bizi ziren beste bi misionest, Bastres eta Dupérou, kaputxinotan sartzekotan zirela. Handik eta

zenbait egunen buruan jakiten dute Carcassoneko kaputxinoetara joan beharrak direla denbora laburrik barne.

Arbelbidek bere dirua sakelan eman eta badao Bastresen ikustera (seminarioan irakasle izana zuen.) Kofesatu nahi duela eta, kofesioaren artetik (sekretua zinez beiratua izan dadien! Beste bi aldiz bederen egin zuen horrela) erakusten dio bere dirua eta deus jakin ez balu bezala diru hori zertan sartu kontseilu galdetzen. Bastresek ere sekretuan jarraitzen du eta Arbelbideri erraten zer



Nafarroako erregeen artxiboetan, 1305ean: «Don Bergoyn de Arbelbide XII s. por clan del seynor de Ganaberro»



Iríde frailea, anaidiaren sortzailea, 1856-1873

xedetan den, baina elkarrekin ariz komentu bat sortzen ahal luketela hemen berean. Gero Duperouren aldi izan zen.

Elkarrekin erabaki zuten La Pierre qui Vireko beneditarren ikustea, baina Deyheralde zuzendariari deus erran gabe: bi urte lehena-go, Bastres eta Duperou, Argentinako euskaldunetara joatekotan zirelarik, Deyheralde zuzendariak, bi apaiz horiek baitezpadakoak zituela misionentzat erran zion apezpikuari eta honek desegin bi lagunen ametsa.

Arbelbidek egin zuen beneditarrekiko arartekoa: Bera joan zen haiekin mintzatzera Hazparneko zuzendariak uste zuelarik Beskoi-tzen zegoela oporretan, osaba erretorearen etxean.

Denak pikoan izan zirelarik, beneditarren baimena sakelan, bai eta gero apezpikuarena, zuzendaria ere abisatu zuten. Urrunegi joanak ziren: ez zen gehiago atzerat egiten ahal.



Maisonnavé Larresoroko zuzendaria,
Arbelbide ikastera joan zenean




Baionako seminario ohia, Druilhetek 1722an eraikia. Seminario berria 1918an

Bastres eta Duperou joan ziren 1872an; beren nobiziadua egitera Morvaneko komentura. Baina ez Arbelbide.

Komentu berriaren estrena 1875eko irailaren 1ean egingen dute lehen beneditarrek. Arte horretan Arbelbidek eta Caillavak eresia eta antolatua zuten Belokeko komen-

tuan, 5.000 lagun, eta 300 apaiz etorri ziren Augustin Bastres, Odilon Ardans, Thomas Duperou, Damien Lapeyre, Laurent Etxeberri lehen fraileen sartzea ospatzerat. Arbelbide bera, ordea, ez zen behin ere sartu beneditarretan, nahiz han zeuzkan lagunak artoski eskatu zioten haienganatzea. Gero aipatuko dugun beste proiektu bat bazuen gogoan.



Larresoroko seminarioa ttipia, Jean Dagerrek 1733an eraikia

Mauleko fraileak

*E*hilo deitu barkoxtar kalonje xahar batek 80.000 libera eman zizkion «obra on bat» egiteko. Fortuna bat! Maulen gertatu zen salgai Arteztiarren jauregia bere 80 hektarea lurrekin. Erosi zuen. Baina zer egin horrelako ondasunarekin?

Bost aldiz eskaini zion Ducellier Baionako apezpikuari. Baina honek ez zuen ikusten zer egin zezakeen horrelako etxearekin.

Lasalleko fraileei eskaini zien frailegaien formakuntza eta nobiziadu bat egiteko, geroago, fraile euskaldunekin, hemengo herri handietan eskolak sortzeko. Xuri eta gorrien, errepublikazale eta besten



Bastres, Belokeko lehen abadea, fraileen burua

arteko gerla, gorrienean zen. Lege berriek debekatua zuten dotrina edo katixima irakastea eskola publikoetan eta horren kontra ikusten zuten aterabide bakarra zen elizako eskolen sortzea. Baina hemen ez zen hurbiltzekorik ere irakasle izateko beharko zen gazte eskolaturik. Horra zergatik dei egin zien fraileei. Egoera politikoa batere ez segura izanez, fraileak ez ziren menturatu zerbait berriren sortzera.

Belokeko adiskideei proposatu zien, misio-neak Xiberuan egiteko, tokian izanen zirela. Baina trenbidea orduan estrenatua zuten



Belokeko lehen komentua, Arbelbidek eta Caillavak 1880an eraikia

Maulen eta beneditarrek erantzun zioten, trenari esker ez zela gehiago «urrun» Xiberoa. Trapistei ere eskaini zieten komentu bat egiteko. Hauek ere ez hartu.

Eta hona non fraileen zuzendaritza aldatzen den. Zuzendari berria bera irakasle izana zuen Baionan ttikia zelarik. Honek onartu zuen Arbelbidek egiten zien opari ederra. Horrela da etxe hori fraile etxe bilakatu 1884an.

Jauregi ondoan baitzen Montplaisir etxea, Hazparneko misionesten etxe bilakatu zen. Hor zeuden fraileen apaiz-lana egiten zuen misionesta, bai eta Xiberun misioak egiten zituztenak ere. Arbelbidek berak ere egonaldi luzeak egin zituen hor.

Mauleko kolegioa Hazparneko misionesten gain emana izatea erdietsi zuen apezpikua-rengandik, 1889an.



MICHEL CAILLAVA



DAMIEN LAPEYRE



THOMAS DUPÉROU

Caillava, Lapeyre eta Duperou Belokeko lehen fraileak, Arbelbideren adiskideak

Maiorga Donibane Garazin

Bera garaztarra eta ez zezakeen bere herria ahanztz. Hor ere nahi izan zuen fraileen eskola bat. Beltzagi Donibaneko erretorearekin erabaki zuten eskola bat egitea. Lur bat erosi. Baina erretxena zen hori. Fraileak behar ziren irakasle lana egiteko. Nork aurki zitza-



Frantxixtegi bikario nagusia, Arbelbideri Beloke sortzen lagundu ziona

keen Arbelbidek baino hobeki. Agerria eman Maulen eta zerbait zor zioten Lasalleko fraileek. Baietza eman zioten. Eskola berriko lanak oraino bururatzekoak zirelarik etorri

ziren fraileak 1892an. Hazparneko misionest bat ere bazen. Baina ez ziren elkarrekin konpondu eta azen ontzeko erretorea hilik, honen ordainak fraileen alderdia hartu zuen misionestaren kontra. Harremanak mindu ziren eta azkenean fraileak joan.

Sei hilabete barne ordainak aurkitu zituen Arbelbidek, Ploermeleko fraileak, eskolarekin frailegai etxe bat ere egiten zutela Donibanen. 1893ko abenduan hor ziren.



Londaitzbehere Hazparneko erretoreak erdietsi zuen apezpikuak Arbelbide misionistegira izenda zezan

Hazparneko misionistak

Gorago erran dugu ez zela Beloken sartu, nahiz han zeuzkan adiskideek hala nahiko zuketan eta hura ikusiko zuketelarik frailetxe-ko abade. Besterik bazuen gogoan. Hemengo gazteak milaka zoatzin Ameriketara: ofizialki 80.000 joan ziren 50 urtez. Kontrabandan joanak bestalde.

Dominique Sarrote uharte-garaztar trapista igorri zuten diruketa 1854an bere zuzendariek, Montevideoko euskaldunetara, Ameriketako Estatu Batuetan Gethsemaniko fraile-

txea sortzeko. Ohartu zen dirudunak baldin baziren euskaldunetan besterik ere bazela. Beharrean zirenetaz arduratu zen. Hala nola bi hazpandar gazte erailak izanik nehork ez zion kasurik egin gertakari horri. Sarrotek eskutan hartu zuen, bururadino eraman: hobendun ziren soldaduak aurkitu zituzten, jujat edo epaitu, bi aitzindari hiltzera kondenatu eta lau soldadu preso eman.

Misioneak predikatu zituen, euskaldunak ehunka biltzen zituela. Eliza eder bat eraikitzen hasi zen. Nuntzioak Erromara idatzi zuen hor



Agerria Mauleko frailetxea, eskola eraikitzeko lasalletarrei emana

geldi zedin eskatzeko, baina bere zuzendariak manatu zioten berehala sar zedin komentuan.

Aita Bastres misionestak 1871n izana zuen Ameriketara joateko lehen ideia baina ikusi dugu nola aita Deyheralde misionesten zuzendariak gibelarazi zuen apezpikua.

Gero Betarrameko apaizak joan ziren Hego Ameriketara. Hauetarik zenbait euskaldunek bere anaien ardura hartuko zuten. Horietan ezagunena aita Frantzisko Lapitz idazlea eta aita Gimon. Baina asko hil ziren epidemia baten ondorioz, euskaldunak guti ziren eta lana



Fleury Hottot apezpikuak (1887-1889) zuen Misionestetaz kongregazio bat egin Arbelbidek eskaturik



Lapitzek apaizak Argentinara igortzera bultzatu zuen Arbelbide

ugari. Lapitzek berak zion Arbelbideri idatzi zerbait egin zezan eskatzeko.

Arbelbidek lehenagotik ere bazuen arren-gura hori eta berak idatzi du ez zela Beloken sartu Ameriketako euskaldunentzat zerbait egin nahi zuelakotz. Gainera nahiago zukeen bere anaiak hemen gelditu balira Ameriketara joateko partez, ikusten baitzuen haiek utzi etxe eta ofizioetan, frantximentak sartzen zirela, euskara arriskutan emanez gainera.

Hazparneko misionestak erlijio ordre edo anaidi bat izanak ziren hasieran eta gero La-



Berdoly gorrien diputatua

Kongregazio berria

Bere kongregazio berria antolatuko du eta azkartuko. Bere gain duen Mauleko kolegioan emanen ditu apaizgai ttipiak bai eta Maiorgan. Nobizioak eta apaizgai handienak Hazparden berean. 1897an idazten dio lagun bati 20 apaiz, batuak eginak dituzten 44 apaizgai eta 57 gazte eta gaztetxo badituela. Hamar urtez egiteko, gaitzeko punpea da: 123 kide. Mendea horrelako zen.

Apezpikuak pasaraziak zizkion Argentina edo Txiletik etorri apaiz eskaera bat baino gehiago, baina ez zuen ihardetsi zinez bere burua aski indartsu izan arte. 1896an izanen

croix apezpikuak botoak kendu zizkien, apaiz elkarte xoil bilakatzen zela... eta gehiago apezpikuaren meneko. Arbelbideri iruditzen zitzaion botorik gabe ez zela apaiz elkarte seriorik. Fleury Hottot apezpiku berriaren ganik erdietsi zuen hori, bere lagunek zuzendari hautatu zutelarik. 1888ko azaroaren 7an egin zituzten denek botoak apezpikuaren aitzinean. Elizkizun horren berri ematean apezpikute giko astekariak idazten du agian laster apaizgai eta apaizak izanen dituztela Ameriketara diren euskaldunei apaizak igortzeko.

Hortik harat Ameriketatik etorriko diren galde guztiak, Arbelbideri pasa araziko dizkio apezpikuak.



Jauffret apezpikua (1889-1902). Honekin zituen arazoak izan, Napoleonen konkordatuaren arabera gobernuak hautatzen zituen apezpikuak



Inchauspe bikario nagusia eta Vatikanoko I. Kontzilioko teologoa eta euskaltzale eta idazle handia, bere herrira igorri zuen Jauffretek Baionan sartzean

da urrats hori. Ez zituen apaizak bakarrik igorri nahi baina ere apaizgaiak: ordu arte apaizgaiak ez zuten soldadugorik egiten eta gobernu gorriak erabaki zuen bestek bezala egin beharko zutela. Soldadugoari ihes egiteko bide bakarra, adin horretan Frantziatik kanpo izatea: beraz, 20 urtez gorako apaizgaiak Argentinara igorriko zituen.

1898ko urtarrilaren 5ean hartu zuen Arbelbidek ontzia Bordelen berekin zeukala Beltzuntze, han egonen zen lehen apaiza. Han zeudela etorri zen bigarrena, Mendiondo,

apirilean. Hango harat-honatak bururatu eta Bordelen jautsi zelarik ontzitik ekainaren 24an, Ossiniry apaizgaien arduradunaren gutun bat eskuratu zuen: «Zato laster. Apezpi-kuak ez ditu ordenatu nahi gure 7 gazteak».

Zer gertatu zen? Ezin jakin, idatzi bihirik ez baita horretaz artxibotan. Ondoko asteetan Arbelbide zuzendari kargutik kendua izanen zen, predikatzea debekatua misionest guziei, erabaki gogor horietaz deus ez da gelditzen artxiboetan. Apezpikutegiko aldizkariak ez du agertzen bere ordezkariaren izendapena ere.



Maiorgako kolejioa, apaizgai ttipientzat

Kongregazioa desegin

Garai haietako apezpikuak jaun handiak ziren. Beren botereaz oso kilika. François Jauffret etorri zelarik Baionara 1789an, Arbelbide hautatu zuen lehenik bikario nagusia izateko, baina Pariseko gobernuak ezetza eman zion, baizik eta baimenik gabeko kongregazio baten burua zela. Napoleonen konkordatu pean bizi zen Eliza. Gobernuak zituen hautatzen apezpikuak. Gobernuaren baimena behar zen bikario nagusi, kalonje eta erretore inportanteenak izendatzeko.

Jauffretek arazo gogorrak izan zituen Baionan sartu zelarik. Gobernuak eskatu zion beren kargutik kendu zezan erretore andana bat. Batzuentzat barkamena erdietsi bazuen, hamabost batek aldaira izan zuten egunetik biharrera. Erromara dei egin zuten, ez zutelakotz Elizako lege bihi bat hautsi. Erromak hautsi-mautsi bat proposatu zion Jauffreti, baina proposamen hori ikustearekin zainetarik joan zen eta ez zuen onartu. Gaztigatuetarik lau, Monsiñore izendatu zituen Erromak, sekulako eskandalua izan baitzen Parisen ere diputatuen biltzarrean: konkordatuaren arabera, izendapen horiek Parisen baimena beharko zuketzen.

Zauriaren gaineko pikoa, hemengo apaizak beren lagunen alderdia hartu zuten. Lanak izan zituen bikario nagusi bat izatea onartu zuen bat, bai eta parrokia handi zenbaiten erretoreak aurkitzen.



Diharce bikario nagusia izan zuen partida



Abbadie Larresoroko zuzendariak sustengatu zuen



Elissague Donibane Lohizuneko erretorea ere sustengatzen zuen



Garcia Hazparneko erretorea ere Arbelbideren lagunetarik zen

Ondoko urteetan barna iduri luke ongi konpondu zela Arbelbiderekin. Zer gertatu zen bada 1898an? Buenos Airesen zelarik apezpikuari gustatu ez zitzaion ekinbide zerbait hartu ote zuen? Dena den apezpikuaren ihardokipena biziki gogorra izan zen. Kongregazioa desegin zuen nahiz Arbelbidek Erromara dei egin zuen. Baina apezpikuaren esku gelditzen diren kongregazioetarik zen eta ez zuzenki Erromaren meneko direnetarik. Kongregazioa desegin beraz eta deusik ez egin ordainez dozena milaka Ameriketara zoazin euskaldunen alde: 1961 urtea igurikatu beharko da Baionako diosesak apaiz bat igortzeko Kaliforniara. Ordu arte, beste lan batentzat joanak ziren Belokeko beneditarrek eta betarramistek zuten zerbait egin beren anaientzat, ahal zutenaren arabera, biek Hego Ameriketan, beneditarrek Ipar Ameriketan ere.

Arbelbideren hutsa ez zitekeela hain handia erakusten du bere kalonje izendatzeak. Funtszko arazoa, botere arazo bat izan zen. Apezpikuak ez zuen nahi Baionatik 25 kilometrotan, osoki bere meneko ez zen Kongregaziorik, bereziki Arbelbideren nortasuna zeukan norbaiten esku. 1898tik harat, hura «zuzendari nagusi» tituluarekin agertzen zena ordu arte, tituluari doazkion ohoreekin, apaiz xoil bilakatu zen. Bere apaiz lagunek go-raipatzen zuten hortik harat eramane zuen bizia, deus gertatu ez balitz bezala, eskuin eta ezker zebilela konfesatzen eta erretreta predikatzen bereziki serora etxeetan.

Euskal idazle ederra

*St*asieran erran dugun bezala Lafitteren arabera, haren euskara Axularrena bera-rena baino ederragoa da batzuetan. Lau liburu utzi dizkigu. Lehena *Bokazionea* edo *Jainkoaren Deia*, 464 orrialdetako liburu lodia, 1887an. Parte bederen Mauloko etxe hartan zelarik idatzi du. Bera apaiza, Belokeko sortzaileetarik, Lassalle eta Ploermelgo fraileekin harreman her-tsiak izanak, Angeluko eta Uztaritzeko seroretan predikatzen ibilia, gai hori lan-dua zuen eta bazekien ongi zertaz min-tzo zen. Erran behar da halere garai haietako ikusmoldeak zeuzkala: Jainkoaren deia entzutea, mundu lanjeros edo arriskutsu batetik ihesi egiteko moldea zen, bere arima salbatzeko.



Broussain Hazparneko auzapezarekin ari izan zen Euskal Akademia sortu nahian

Bigarrena, *Erlisioea*, 1890ean plazaratu zuen bigarren edizio batekin 1892an, 436 orrialde batek, 480 besteak, baina biak berdinak dira ez bada hizkiak larriago direla bigarren edizioan. Dotrina aldetik hau ere bere garaikoa da. Amodioarena baino gehiago beldurraren erlisioea: Jainkoak gaizkileak ez ditu baka-rrik infernuaz gaztigatzen, baina oraindanik. Hala nola, Iraultza garaietan, urtso ihizira joan apezondo bat arbolatik erori zen eta han berean hil, Jainkoak gaztigaturik, apaizgoa utzia zuelakotz.

Hirugarrena *Hazparneko kalbarioa* 1895ean. Aitzinsolasa eta lehen kapitulua ditu bereak honetan, gaineratikoa, Kalbario horren es-trenakari egin ziren predikuen bilduma da. Bururatzean euskarazko 82 kantika badira, beren aireekin, gregoriano moldean idatziak. Jarret bere misionestari egin arazia zion lan hori. Euskarazko kantika notatuen lehen bil-duma serioa da.

Ondoko urtean 1896an, plazaratu zuen az-kena, *Igandea edo Jaunaren eguna*, 226 orrial-detakoa. Goizean meza, arratsaldean bezpe-rak, gero pilota, musa edo irakurtze serioak.



Vinson hizkuntzalariaren adiskidea zen Arbelbide

Neskentzat aldiz seroretara edo berehala etxera. Horra eguneko programa, garai haie-tako igandetean.

Bi urte berantago zuen apezpikuak hautsi. Idazten aritzeko tirria galdu ote zuen? Ez du beste libururik idatzi 1905ean hil zen arte.

Nikolas Ormaetxea *Orix*e idazleak asko go-raipatzen du Arbelbide *Euskal literaturaren atze edo edesti laburra* izenekoan: «*Jainkoaren deia edo bokazionea* (1887) eta *Igandea edo Jaunaren eguna* (1895), ditu Arbelbide kalon-jeak, ezagutzen dugunik. Bi liburu horiek mami hutsa dira, bururen buru irakurri arte-raino betarik eta egonik ematen ez dutenak. Euskalki edo dialektoak zerbait nahasten di-tuela, egia; baina barkakizun da horregatik.

Arbelbideren aitzin-solasak ere ongi buruta-tuak eta mintzo ederrean esanak dira. Irakur bedi batez ere A. Joannateguyren *Sainduen Bizitzea*-ren bigarren liburuari eman zion ai-tzin-solhasa. Erabiltzez eta herriz baino area-go zekien euskara liburuetakoko ikastez».

Euskara ederra duela ezin ukatu, erran zahar eta bertsoz apaindua. Ahal bezain guti hitz hartuz erdarari. Garaziko euskara zuen, bai-na, berak erraten digunaz, misioneak predi-katu zituen herrietakotik aberastua, bai eta irakurtuak zituen idazle klasikoetatik: nonbai-tik bildu zituen edizio originalak, hala nola, Leizarragaren *Testamentu Berria*. Bestalde, urte haietan berredizio andana bat egin zen, kreazioak bestalde.



Bokazionea edo Jainkoaren Deia bere lehen liburua



Erlisione: Eskual-Herriari dohazkon egia-rik beharrenak, bere bigarren liburua



Arbelbideren hutsa ez zitekeen hain handia izan kalonje izendatzen baitu apezpikuak



Igandea edo Jaunaren eguna, hirugarren liburua



Hazparneko kalbarioa eta kantika eskuarak bere aireekin, beste batzuekin egin zuena

Besteak ere idazle horien irakurtzera gomitatzen ditu. Haren ustez, «makur handi batean behastopatu direla: eskuarari nolanahika nahasi dute erdara, frantsesa ala española». Hendaian eta Hondarribian 1901ean eta 1902an euskal grafia batzeko asmoz egin ziren Euskaltzaleen Biltzarretan hartu zuen parte, Daranatz, Guilbeau, Darricarrere, Adema, Hiriart-Urruty, Broussain eta abarrekin. Hegoaldetik ere han ziren, jakina, Campion, Azkue, Arana, Juan Carlos Guerra, Serapio Mugica eta beste. Arbelbideri proposatu zioten Euskaltzaleen Biltzarreko lehendakari izatea, baina eza eman zuen ez zuelakotz gramatika ikasia. Abadiaren lore joakoetan epaimahaiburu izan zen 1902an.

Joanago eta euskara landuago dauka. Bai eta artifizialagoa aitortu behar dugu: klasikoetako aditz eta erranmolde arraroak sartzen zizutuzkeen irakurgaietan bildu arau. Hona erranaldi bat *Igandea*-tik: «Hastean ez derau nihork irri beizik egiten, delakotz heien elea nahasia bezain bitxi. Ergelkeriari datxeko tema eta ihesi joan orde listor burrumba horiek darraizku beti, erdara dariotela».

Igandea liburuko lehen 39 orrialdeetan ematen digu bere ikusmoldea gure mintzaira zaharraz. Ez da mintzaira, euskaldunak beren getoan hesteko tresnatzat daukaten haietarik. «Bai, ikasi behar ditugu erdarak, eta ikasi ahalik eta hobekienik.» Urteak eta urteak ari izan da fraileak hona ekarrarazten, eskolak sor zitzaaten, frantsesa erakatsiko zuten eskolak. Baina nahiko zuen euskara ere ira-

katsia izan zedin eskola horietan fraile betroinek beren mintzairarekin beren herrian egiten zuten bezala. Horrengatik zuen Ploermelgo fraileen aukera egin.

Euskarari atxikia da bere balioagatik. Arbasoen ohidurak gordetzea nahi du, baina oroz gainera euskara. Zergatik? «Eleak labur ditu, erne eta bizi. Erran nahi den hura erran, eta beti aitzina doa. Iduri du zilar bizia. Ez du hitz bat hutsik ez alferrik.»

Bigarren mailako gaiak baizik ez ditzakeela aipa uste dutenei erraten die: «Eskuara erdara bezain ongi mintza daiteke edozoin gauza handi eta goratikakoez».

«Ez du bertze mintzaiekin deus nahastekarik, garbia da eta osoki berezia. Hitz berrien egiteko antzea badu eta maiz berri horiek ez dire ederrago baizik.»

«Munduko zaharrenetarik da eta hoin iraunkor denaz geroz baduke desagertu diren mintzaiek ez duten zerbait. Ez dugu zeren ahalge izan gure mintzairaz.»

Uste zuen euskara ez zela galduko, euskarazko liburuak agertzen zirelakotz sekulan baino gehiago. Garai haietako tresna modernoa baliatzen zuen euskarak. Euskara lantzera ere gomitatzen zituen bazekitenak.

Euskara batuari buruz urrats handiak eginak zituen ortografia aldetik, legetzat hartua zuela hizki bakar bat soinu batentzat, «c» eta «q» guziak desagertzen zirela «k»rentzat.

Gizon irekia

Ez nuke bururatu nahi goi mailako gizon irekia zela azpimarratu gabe. Vinson-i manatzen dizkion liburuetarik ageri da zer-nolako maila zuten haren irakurgaiek. Laguntza handia ekarri zion *Essai d'une Bibliographie de la langue basque* liburua egiteko.



Sineste handiko gizon irekia eta osoki euskalduna izan zen

Baina ez da fededuna. Garai haietan, berriz, giristinoak eta apaizak ez ziren gurutzatzen sinesgabeekin, beldurrez eta kutsatuak izan: xuri-gorrien gerla beroenean zen jadanik erran dugun bezala. Arbelbidek harreman onak eta hurbilak bazituen Vinson batekin, (bere etxean jatera eta lo egitera ere gomitatzaren zuen) hau ez zelarik batere sinestuna beraz eta gainera beste euskaltzaleek ere baztertzen zutelarik. Hor dira lekuko bien arteko gutunak erakusten baitigute bere bibliografiaren egiten lagundu duela.

Jauffretek bikario nagusi izateko hautatu lehena izan bazen, erran nahi du ez zuela bere burua agertu hauteskundeetan errepublikazaleen kontra, apaiz gehienek egin zuten bezala.

Bi lerrotan laburbiltzeko erran genezake, sineste handiko gizona izan zela eta osoki euskalduna, nahiz ez abertzalea, garai haietako Euskal Elizak Frantziakoarekin bat egiten baitzuen: etsaia berak zituzten, gobernu gorria Parisen eta Alsazia hartua zuen Alemania kanpoan. Euskaldunen eta euskararen estimu eta axola handia zeuzkan, bere ideiak zabalitzeko, euskara eder eta aberatsean idatziz, erakutsi zuen bezala.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak liburuxka hau egiteko, jasotako laguntzagatik, eskerrak eman nahi dizkie:

- Xipri Arbelbideri
- Auñamendi Enziklopediari
- Iker Robles Aranguiz margolariari
- Lasalleko artxiboetako arduradunari
- Ploermelgo artxiboetako arduradunari
- Jesuiten artxiboetako arduradunari
- Vatikanoko artxiboetako arduradunari
- Betarrameko artxiboetako arduradunari
- Belokeko artxiboetako arduradunari
- Gartzia familiari
- Intxauspe familiari

Zuzendaritza: Mikel Atxaga

Argitaraldia: I.a, 2005eko abendua

Ale-kopurua: 3.000

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, I - 01010 Vitoria-Gasteiz

Argazkilaria: Edorta Sanz

Fotokonposizioa: R.G.M., S.A.

Inprimaketa: R.G.M., S.A.
Padre Larramendi, 2 - 48012 Bilbao

ISBN: 84-457-2365-0 (Lan osoarena)
84-457-2367-7

L.G.: BI - 2871-05

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística